

Memoriaren ibilbidea egingo dute lehenengoz, Batzarretxean hasita

36ko gerrako euskal gudarien omenezko eskultura inauguratuko dute Pasealekuan, zapatuan • Herriko ikastetxeetako ikasleek piztuko dute sirena hotsa aurten

- ANE MARURI ARANSOLO
Gernika bonbardatu zutenetik 81 urte igaro dira, eta gertatutakoa gogoratzeko udalak eta **Gernika Gogoratuz** elkarteak hainbat ekintza antolatatu dituzte gaurko. Memoriaren Ibilbidea ekimena da aurtengo urteurrenari begira antolatutako ekitaldi berrietako bat.

Gernika-Lumon 1937ko apirilaren 26an gertatutakoa memoriari mantentzeko, eta bonbardaketan hildakoak omentzeko ekitaldiz beteko da herria gaur, baita asteburuan ere. Udalak eta Gogora institutuak Memoriaren Ibilbidea egingo dute 11:00etan Batzarretxean hasita, eta herriko lekurik esanguratsuenetan jarritako panel informatiboak inauguratzea du helburu. Panel bakoitzak leku bakoitzari buruzko informazioa eta memoria lankeak egiten du.

Ibilbidean gainera, Pasealekuko babeslekuak irekiera emango dietela jakinarazi du udalak.

Urtero legez, 15:45ean, **4 minutu** ekimena egingo dute, eta sirena eta kanpai hotsak entzungo dira herrian. Gernika Batzordeak, Gernikako Lobek eta Kultur Etxeak antolatutako ekimenean, aurten, Gernika-Lumoko



Iazko Gernika Sariak, Lizeo antzokian. OLAIA ZABALONDO

ikastetxeetako gazteek aktibatuko dute sirena.

Gaurko egunaz gain, asteburuan ere bonbardaketa eta 36ko gerra gogorarazten duten hainbat ekintza egingo dira Gernika-Lumon.

Ekintza horien artean, «gerran demokrazia eta askatasuna gorde zuten euskal gudariei» omenaldia egingo die udalak zapatuan, Pasealekuan. 13:00etan,

gudariei omenaldia egiten dien eskultura inauguratuko dute, eta horregaz, «bizikidetzeta, bakea, askatasuna eta demokrazia babesteko borrokatu zutenentzako justizia eta omenaldi jarduna» gauzatu gura duela adierazi du udalak.

Pasealekuan jarriko den brontzezko eskulturak 3,17 metroko luzera eta 1.200 kiloko pisua dauka. Jaizkibel Fundazioak

Egitaraua

GAUR

11:00. Memoriaren ibilbidea, Batzarretxetik abiatuta. Leku esanguratsuetan jarritako panel informatiboak inaugurazioa eta Pasealekuko babeslekuaren irekiera.

12:00. Bakearen eta Berradiskidetzaren aldeko XIV. Gernika Sariak, Lizeo antzokian: Daniel Barenboim eta Helena Maleno sarituko dituzte.

15:45. 4 minutu herri ekimena. Kanpai eta sirena hotsa Astratik, Foru Plazatik, Errenteriako zubitik, Agarre plazatik eta Institututik.

16:30. Bonbardaketako biktimen aldeko elizkizuna eta lore eskaintza, Zallo hilerrian.

BIHAR

10:00-10:30. Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko 28. Jardunaldien inaugurazioa, Elai-Alai aretoan.

10:30-12:00. Oroitzapenak, gobernantza eta ziurgabetasuna. Zer ikasi dugu? jardunaldia, Elai-Alai aretoan.

12:00. Lore eskaintza ekitaldia, Jose de Labauriaren eskultura parean.

12:30-14:00. Bizitzaren iraunkortasunerako aukerak jardunaldia, Elai-Alai aretoan.

13:00. Lore eskaintza, George Steer kazetariaren eskulturaren.

16:00-17:30. Bizirautetik bizitzera. Zertan ari gara? jardunaldia, Elai-Alai aretoan.

17:30-19:00. Ongi Etorri Errefuxiatuak dokumentalaren estreinaldia, Elai-Alai aretoan.

20:30. El latido de Urdaibai dokumentala, Elai-Alai aretoan.

ZAPATUA, APIRILAK 28

10:00-12:00. Gatazka egoeran dauden lurraldeak: Gaitasunak sendotzeko eta bizi aukerak eraikitzeko ikerketa, prestakuntza eta ekintza proiektuaren aurkezpena, Elai-Alai aretoan.

12:00-12:15. Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko 28. Jardunaldien amaiera ekitaldia, Elai-Alai aretoan.

12:30-18:00. I. Gatazkan dauden lurraldeak proiektuaren nazioarteko mintegia, Gernika Gogoratuz egitaraua.

13:00. Gudariei omenaldia eskulturaren inaugurazioa, Pasealekuan.

DOMEKA, APIRILAK 29

09:00-13:00. Hiroshimako alkatearen eta Japoniako ordezkari-tzaren bisita.

12:00. Hiroshimako bomba atomikoak kaltetutako arbolaren bigarren belaunaldia landatzeko ekintza, Europako Herrien Parkean.

ematea beharrezkoa da horietan parte hartzeko.

Elkarteak esan duenez, «gerra eta ugaritze nuklearra garaiko errealitateak dira», eta horiei buruzko hitzaldiak egingo dituzte. «Iraganeko gertaeratik ikasi behar dugu gizateriaren aurkako mehatxuak saihesteko, eta, aldi berean, planetarentzako jasangarriak diren ekimenak garatzeko gaitasuna landu behar dugu».

Hilberria

-Esker onak-

Juan Guenaga Totorikaguena

ADRIAN

-Goian bego-

Etxebarrian hil zen, 2018ko apirilaren 22an, 72 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartu ondoren.

Emaztea: M^a Carmen Urkidi. Seme-alabak: Gaizka eta Nerea Plaza, eta Jon. Anai-arrebak: Batista, Antonio, Begoña eta Bitxori. Koinatuak: M^a Carmen, Santiago, Felix eta Cecilia, Mariñe eta Jose, Jon eta Rosa. Lobak, lehengusu-lehengusinak eta beste senide guztiak.

Familiaren partetik, eskerrik asko hartutako doluminengatik eta momentu latz hauetan lagundu diguzuen guztiei.



Hilberriak Urteurrenak Eskertzak

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA

HITZAK bi eskualdeetan 28.000 irakurle

Eskelak 18:00ak arte hartzen ditugu
lea-artibai@hitza.eus / Gizaburuaga: 94-684 44 36 / busturialdea@hitza.eus
Gernika-Lumo: 94-627 10 85 / Bermeo: 94-618 72 99

Tarifak (BEZ barne)

Bi modulu	1X2 (38 mm x 64 mm)	50€
Lau modulu	2X2 (82 mm x 64 mm)	100€
Sei modulu	3X2 (168 mm x 64 mm)	150€
Hamabi modulu	3X4 (168 mm x 131 mm)	300€